# Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA




























# "HONDARRIBIA" ALDIZKARIA 20 URTE


































HONDARRIBIKO UDALA . EUSKARA BATZORDEA . DOHAIN

3. **Hondarribia.** Patxi Baztarrika

4. **Hondarribiak 20 urte:zorionak denei.** Borja Jauregi.

5. **Gure herriko aldizkaria:”Hondarribia” 1986-2006.** Kattalin Noblia

6-7. **Aldizkariaren historia laburra**

8-9. **Nola hasi ginen aldizkaria egiten 1986ko martxoan.** Fermin Olaskoaga eta MIkel Zuazabeitia

10-11. **Ondarribi´tik-Hondarribira**. Xabier Gezala

12. **Hondarribia aldizkari duela 20 urte, eta duela 50 urte ere!!!!** Koldo Ortega

13. **Hogeigarren urteburua.** Martin Iturbe

14-16. **20 urteko ibilbidean teknologiaren garrantzia**.

17-18. **Bitxikeriak**

19.**Euskarazko komunikabide lokalak: atzo eta gaur.**

20-21.**Herri aldizkariak Euskal Herrian**

22-24. **Publizitate iragarkiak duela mende erdi**

25.**Hondarribia aldizkariaren harpidedunak**

26 - 27.**Gaur gurekin ez dauden kolaboratzaile zintzoak**

28.**Demografiaren 20 urteak**

29-31.**Hondarribiaren aldaketa hiri bezala**

UDAL EUSKARA ZERBITZUA HONDARRIBIA





Argitaratzailea: Udal Euskara Batzordea
Errekdazioa: ZIF & Comunicación
zifcomunicacion@terra.es
Disenua eta maketazioa:Usoa Ramírez Melón
Tel: 943 63 81 28
Argazkiak: Hondarribiko Udala
Inprimategia: ANTZA
L.G: SS 122/86

# Hondarribia



Patxi Baztarrika

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Bidasoan barrena sartu zen haize berritzailea Gipuzkoara, eta orain hogei urtetik gora euskararen erabilera noranahiko egiteko ahaleginean genbiltzanek, nik neronek Andoaingo Udaletxean euskara teknikari gisa, itxaropena eta ezinegona nahasten zituen zirrara batez ikusi genuen haize berritzaile hura zertan zetzan: 1985. urtean Bortzirietan Ttipi-ttapa jaio zen, eta itsasalderago, Irunen, Plazara aldizkaria urte horretan bertan. Bidasoak urte bete behar izan zuen oraindik itsasadarreko hondar ibian, Hondarribian alegia, euskarazko argitalpen berri bat sortzeko. 1986. urtea zen: Hondarribiko Udaleko Euskara Zerbitzuak Hondarribia izeneko herri aldizkaria sortu zuen. Bidasoaldeko isuri hura freskagarria ez ezik, guztiz onuragarria izan zen euskalgintzarako. Geroztik, Euskal Herriko hamaika herritara zabaldu zen isuri aberasgarri hura: tokiko prentsaren edo herri aldizkarien fenomenoa loratzen hasia zen.

Beraz, lehenik eta behin zilegi bekit Hondarribia aldizkaria zoriontzea, eta berau argitaratzen duen Udala, Euskara Zerbitzua eta erredakzio lanetan jardundako guztiak, euskararen erabilera suspertu eta zabaltzeko ahaleginean bide berri bat, eta ez nolanahikoa, zabaldu zutelako orain hogei urte, Bidasoako aipatu beste hedabideekin batera. Aitzindari izan genituen.

Eta ez nolanahikoa esan dut. Agian baten batek pentsa dezake errazkeria hutsez diodala hori, zer esan bestela? Ez irakurle! Hogeitik gora urteko bolada luze horretan tokiko prentsak, herri aldizkariek herri bakoitzeko, eskualde ezberdinetako euskaldunengan eragin duten irakurzaletasunaren lekuko izan naiz, eta zenbaitek uste duenaren kontra, tokiko argitalpen horiek izan dira, gaur hala dira, eta geroan ezinbestez izanen dira gure herrigiroetan, gure famili giro eta lagun-giroetan euskararen erabilera zabaltzeko eta finkatzeko bitartekoen katean katenbegi garrantzitsuenetakoa. Hala deritzot neronek.

Hiztunarengan, hizkuntzaren erabilera bat ala beste finkatzeko eta arautzeko garaian hainbat faktorek parte hartzen dute, ez denak garrantzi berekoak, baina bere neurrian, guztien arteko elkar eraginak ekarriko du hizkuntza baten ala besteren erabilera, hizkuntza baten aldeko ohitura eta joera: faktore horietako bat, eta neurri handiko eragina duena, gure egunerokotasunera, gure bizipen eta errealitaterik hurbilenera inguratzen gaituzten bitartekoek osatzen dute, gu gure etxeko, gure herriko errealitatearekin lotzen gaituen guztia hizkuntza batean ala bestean barneratzea, gureganatzea. Eta guzti horren osagaietako bat informazioa da, hurbileko, herriko berri ematen digun albistea, erreportajea, elkarrizketa, gutuna, agurra…

Guzti-guztiok ulertzen dugu gaur egun zein den informazioaren balioa, zein bere indarra eta garrantzia; esan ere halaxe esaten dugu: informazioaren gizartean bizi garela. Eta agian tokian tokiko informazioa edo prentsa gutxiesteko joerarik badagoen arren -urrutiko intxaurrak beti hamalau-, gure gogo eta sentimendua sakonen jotzen duena bera da: hurbilenetik jotzen gaituelako, lotzen gaituelako, besterik ez bada. Hamaika zenbakitan ikasi dugu kanpotarrek Hondarribiko berri, bere bizimodu eta historiaren berri, bere toponimiaren berri, bere hizkeraren berri… Batzuetan, goi-mailako idazleen bitartez -Martin Ugalde, Juan San Martin…-; besteetan bertako herritar jantzien eskutik, azken hauek Hondarribia lehen aukera izan dutelarik euskaraz jendaurrean idatziz trebatzeko. Herriko eta eskualdeko kazetari berriek ere aldizkaria aldi berean eskola eta lantoki izan dute, eta tokiko kazetagintzaren eredua indartzen joan dira.

Hogei urtez aldizkariari eutsi izana nahikoa arrazoi da etorkizunari itxaropenez eta gogoindarrez begiratzeko. Aurrerabidea aldaketa eta erronkei aurpegi emanez eta inertziekin hautsiz baizik ez baita etorri ohi, garbi dago aldizkariak ere garai berriei, premia eta eskakizun berriei, teknologia berriei erantzun beharko diela. Nolanahi ere, eduki dezagun gauza bat garbi: euskararen erabilera Hondarribian hauspotzeko, zabaltzeko biderik eraginkorrenetakoa herriaren eta herritarren ispilu izan den argitalpenari eustea da, herritarren partaidetza eta hurbiltasuna azalduko duena, garaian garaiko berritasunei atea zabalduz bertako ñabardura eta xehetasunak aintzat hartuko dituena, horiek osatzen baitute lehen-lehenik gure herri ezaugarria edo nortasuna. Hori guztia euskara hutsez jasotzeko aukerak, zalantza izpirik gabe, aztarna utzi du, aleka-aleka hondarra utzi du, hondar pila, urtez urte hazten datorrena ibia osatu arte, gizarte honen iraganetik etorkizunerako hondar ibia, hain zuzen ere. Zorionak, beraz, Hondarribia aldizkariak 20 urte bete dituen honetan, Hondarribia aldizkariari, aldizkaria kaleratzeko fin-fin lan egiten duten guztiei alegia, eta, nola ez, zorionak Hondarribia aldizkariaren irakurleei.

# Hondarribiak 20 urte: Zorionak denei



Borja Jauregi

Alkatea

Eskertzen dut benetan Hondarribia aldizkariaren 20. urteurren hau dela eta sarreratxo bat idazteko aukera edukitzea. Herritar askok hilero itxaroten duten argitalpena, oraingoan bere historia eta bitxikeria jasotzen dituen alea duzue esku artean.

Ez da ez batere erraza aldizkari batek hogei urte betetzea, are gutxiago aldizkari hori euskara hutsez idatzita dagoenean. Guztiok badakigu euskarazko hedabide baten merkatua urriagoa dela gaztelerazko batena baino, horregatik burruka beti da gogorragoa.

Udaletxe honetatik, eta zehazki, Euskara Batzordetik gogor lan egin da aldizkari honen alde. Momentu on eta ederrak egon dira, okerrak ere, baina balorazio ezin positiboagoa egin dezakegu ibilbide honi buruz.

Oso eskertzeko modukoa da ere aldizkari honen alde hainbat denbora, esfortzu eta izerdi eman duten kolaboratzaile zintzo haiek egindakoa. Batzuk jadanik gure artetik joandakoak, besteak hemen daudenak eta batenbat osasun aldetik makal, mila esker denei. Beraien lana ahaztuko bagenu, akats bat egingo genuke.

Eskertzekoa ere Hondarribiko hiritarren irudia. 772 familitan jasotzen da aldizkaria. Hauek irakurriko ez balute eta alde batera utziko, aldizkariak ez luke zentzurik izango.

Orain artean egindako lanari eutsi, eta aurrerantzean grina berdinarekin, eta ahal izanez gero, indar gehiagorekin lan egitea gustatuko litzaidake, aldizkari honen, eta batez ere, euskararen aldeko lana baita.

Zorionak denoi, eta aurrera!

Borja Jauregi

# Gure herriko aldizkaria "Hondarribia" 1986 - 2006



Kattalin Noblia

Euskarako zinegotzia

Kattalin Noblia

1986an Espainia eta Portugal Europan sartu ziren urtean sortu zen HONDARRIBIA aldizkaria, Alfontso Oronoz zena alkatea zelarik. Bide luzea egin du ordutik.

Lehenengo argitaratutako alean ikus daitezke garai hartako Euskara Zerbitzuak bere aurrean zituen erronka nagusiak eta lortu nahi zituen helburuak zein ziren:
-"Herrian euskara suspertu eta indartu", "herritarrak euskaraz bizitzen lagundu", "euskara salbatzeko gure hondar alea jarri" nahi zutela esaten zuten aldizkariaren sortzaileek
-Denei zabalik izatea, adibidez, edozein hiritarren idazlanak kaleratzeko aukera ematea
Gaur esan dezakegu hainbat helburu lortu direla, 20 urte beranduago. HONDARRIBIA aldizkaria, pixkanaka handitzen eta zabaltzen joan da, eta horren froga nabarmena dugu harpidedun kopurua nola igo den eta irakurleen harrera ona ikustea.

Ez nintzake ausartuko lerro hauetan 20 urteko gorabeherak kontatzera, ez banaiz bide luze horren lekuko izan, baina bai gustatuko litzaidake adieraztea nire iduriz zeintzuk diren HONDARRIBIA aldizkariaren arrakastaren zergati nagusiak :
-Hurbiltasuna eta zabaltasuna : biztanleen arteko komunikazio tresna eraginkorra izan dela erakutsi du. Herriaren hurbileko albisteak azaltzen ditu hilero -albiste handiak edo xumeak, alaiak edo hitsak-, irakurleen intereserako. Aldizkaria oso hurbileko sentitzen du irakurleak. Beste alde, beti egon da kolaboratzaileei irekia, eta herriko idazle ugarik erabili ditu aldizkariaren orrialdeak beraien lana aurkezteko
-Herriaren kondaira: gure herriaren historia zati bat azaltzen da hilero, albiste arrunten edo zenbait herritarri egindako elkarrizketen bitartez, eta horrela altxor baliotsua osatzen joan da urtez urte, gaur arte
-Euskaraz idatzita egotea : euskara hutsean idatzia izateak bere izaera propioa eman dio aldizkariari. Irakurleen arteko lotura berezia lortu du, sentimendu eta emozioak agerian utzirik kasu askotan.

Hemendik aurrera, herri aldizkari honek jarraituko du bere xenda egiten, irakurleen fideltasuna bilatuz, bai oraingo irakurleen artean eta bai hurbilduko diren irakurle berrien artean. Denok dakigu beste komunikabide ugari eta indartsuz inguraturik dagoela aldizkaria (prentsa, astekariak edo hilabetekariak, irratiak, telebistak, aldizkari digitalak ), eta bere eremua murrizteko zorian dago. Irudiaren munduak aldaketa asko ekarri dizkio, eta azken urte hauetan kolorea sartu da pixkanaka bere orrialdeetan: Halere, itxura hobetzea ez da nahiko eta premiazkoa da irakurlegoa sendotzea eta ahalik eta gehien zabaltzea, bereziki gazteen artean, hauek baitira etorkizuna.

Hasierako abentura honetan orain dela 20 urte sartu zirenei eskertu behar zaie : hainbat kezka, zailtasun, oztopo eta traba gainditu behar izatea aldizkari hau gaur egun gure eskuetara iritsi zedin. Haien eredua segituz, gure indarrak elkartzen jarraitu behar dugu denok orain arte lortutakoa mantentzeko, hobetzeko eta herrian hedatzeko. Aurrera HONDARRIBIA gure herriko aldizkaria !

# Gaur egungo Hondarribia aldizkariaren historia Euskara Teknikariaren hitzetan

Hondarribia aldizkaria sortuz geroztik 20 urte pasa dira, baina ez alferrik. Asko dira aldizkari honen orrialdeen gerizan kaleratu diren artikulu, albiste eta bitxikeriak, eta asko dira egun aldizkariak dituen irakurleak ere. Dena den, ibilbide luzeetan dena ez da laua izaten; tarteka aldapa eta malkarrak ere gainditu behar izaten dira. Horregatik, aldizkariaren sorreratik gaur egun arterainoko errepasoan, Hondarribiko euskararen errealitatea ez ezik aldizkariaren nondik norakoak gertutik ezagutzen dituen bide-erakuslea hartu dugu lagun. Koro Eraso da bera, Hondarribiko Udal Euskara Teknikaria aspaldiko urteetan, eta hona jarraian aldizkariaren inguruan berak kontatutakoak.

## Ze testuingurutan sortu zen aldizkaria?

1986. urtean Udal Euskara Azpibatzordea eratu berria zen (Kultura Batzordearen menpe), eta bere arduradunak, Joseba Andoni Garaialdek, herri-aldizkari bat kaleratzeko proposamena egin zuen. Halaxe, Azpibatzordeko kideen oniritzia jaso zuen proposamen honek eta Udalak onartu ondoren jaio zen aldizkaria. Aldizkariari HONDARRIBIA izena jartzea erabaki zen -lehendik ere ONDARRIBI izeneko aldizkari bat izan zelako herrian -, eta grafia eguneratuta izena mantendu egin zen. Hasiera hartan zuri-beltzezko 12 orri zituen aldizkariak, eta bi herritar arduratzen ziren gehienbat erredakzioaz, koordinazioaz, etab. Mikel Zuazabeitia eta Fermin Olaskoaga.

Aldizkaria gaur egun dohainik banatzen da, baina orduan 50 pezetan saltzen zen. Horretarako San Pedro kalean jartzen ginen igande eguerdietan mahai txiki batekin, eta hor saltzen ez zirenak herriko dendetan jartzen ziren salgai. Dendari askoren borondatea eskertzekoa da, beraientzat inolako irabazirik gabe salmentaz arduratzen zirelako, eta hori aski ez, askotan jendeak ordaindu gabe eramandakoen dirua ere jartzen zutelako.

## Zein helbururekin sortu zen Hondarribia aldizkaria?

Euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez zuten herritarrengana edo horretarako gai ez zirela uste zutenengana iristea zen aldizkariaren helburua, eta gertuko gaiak modu arinean emanez jendea euskaraz irakurtzera bultzatzea.



Koro Eraso, Udaletxeko Euskara Teknikariak aldizkaria bere hastapenetik bizi izan du

## Kolaboratzaileak nondik ateratzen zenituzten?

Kolaboratzaile zintzo asko izan ditugu beti, bai lehen eta bai orain, hilero-hilero beren lanak xuxen ekartzen dituztenak, eta horiei esker mantendu da aldizkaria, nahiz eta hasierako urte haietan Euskara Zerbitzuak ere lan handia egin behar izaten zuen. Hala ere, aipatu beharrekoa da Juan Antonio Letamendia Euskara zinegotzi izan zen garaian aldizkariaren zama bere gain hartzen zuela.

## Garai bateko laguntzen eta egungoen artean alderik izango da, noski...

Garai batean ez zen inongo diru-laguntzarik jasotzen; publizitatearekin eta salmentarekin osatzen ez zena -kopururik handiena, noski- Udalak jartzen zuen. Dena den,



Ainara Elizondo

duela urte batzuk Gipuzkoako Foru Aldundia horrelako argitalpenetarako dirulaguntzak ematen hasi zen eta Hondarribiak beti eskuratu izan du. Bestalde, gaur egun Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian sartuta dago Hondarribiko Udala, eta aldizkaria ere plan horretako ekintzetako bat denez, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak diru-laguntza ematen du.

**Ardura handia al da aldizkaria hilero kaleratzea?**

Bai, baina orain askoz errazago egiten dugu. Aldizkariaren arduraduna Euskara Zerbitzua izanagatik, erredakzioa eta koordinazioa enpresa bati esleitu zitzaion eta horrek lana asko arintzen du. Horrekin batera, lehen aipatu bezala kolaboratzaile zintzo askoak baditugu eta horrek ere beti laguntzen du.



HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86

8. zenbakia | UDAL EUSKARA AZPIBATZORDEA | 50 pta. | 1986ko Azaroa

Bederatzigarren hila betetzen da azaroan, aldizkari honi hasiera eman geniotik, eta beste bederatzi bider bederatzitan nahi genuke euskarazko lan honetan jarrai.

Eusko Jaurlaritzak berak ere "EUSKARAZ IRAKURRI" kanpainari ekin dio, eta HONDARRIBIA hilerokoa ere hortaraxe zuzentzen da, hain zuzen.

Euskaraz mintzatu, idatzi, irakurri, eta pentsatuz, orduan izango gara euskaldun.

• • •

Ale honetan SANTI GONZALEZ, MAYI ERRAZKIN, eta hauen bi semeak URKO eta ZIGOR dakartzagu herritarren begietara. Hondarribitik belari batetan irten eta Guayana frantzesera itsasoz iritsi ondoren, orain Pazifikoan zehar Polinesiara abiatuko direlako. Nolako ibilaldia egin duten kontatzen digute laugarren orrian.

Gainera, nekazantza, arrantza, kultura, eskola, udala eta beste hileroko saillak ere ikus ahal izango dituzu.

Sail berria ere irekitzen dugu hil honetan: Hondarribiko lehengo izen zaharren eskuratzea eta erabiltzea.

KAI BERRIA EZ? KAI BERRIA BAI?

Aspaldi honetan gai eztabaidatsu gertatu dela esan dezakegu **kai berriaren luzatzea ala ez luzatzea**, bai alde edo kontrako posturak ondorio desberdinak eta garrantzi haundikoak ekarri ditzakelako herrira.

Gure asmoa hemen ez da gai horretan sartzea, alde edo kontra jartzea. Guk, hitz gututan, orain arte emandako pausoak agertuko ditugu.

1957an hasi zen kai berriaren luzapenaren eztabaida. **ONDARRIBI** aldizkariak, 1959ko apirilaren 18an, kai berriaren krokisa zekarren, Udalak erabakia hartzeko eskatuz kontzejalei.

Ordu ezkero 27 urte igaro dira, eta oraindik ez da agortu gaia. Iparraldeko dikea egin zen, duela 10en bat urte. Orain horren luzapena eztabaidatzen da. Gasteizko Gobernua prest dago luzatzeko, hego aldera zati bat luzatuz, baina Hondarribiko Udalak ez omen du garbi ikusten horrek hondartzari ekarri dezaioken ondorioa, eta orain arte ez du erabakirik hartzen. Gaia ateratzen den bakoitzean, mahai gainean uzten du, hurrengo batean ikusteko. Jarrera hau ezin dela betirako luzatu, eta bilera bat egin da Santanderren Escuela de Ingenieros de Puertos y Canaleseko Losada jaunarekin, ea kaia pentsatuta dagoen bezala eginez gero, zer gertatuko zaion hondartzari galdetuz.

Erantzuna laburra izan zen: **"egindako dikeak aldatu duela hondartza %80, eta hemendik aurrera egingo den guztiak ezer gutxi okertuko duela gaurko egoera"**.

Koxka guztia honetan dago; batetik arrantzaleek kai haundiagoa behar dutela; bestetik, Hondarribiko hondartzak ahalik eta kalterik txikiena sufri dezala. Bi puntu hauek lotu nahi dira. Eta, dirudienez, nahiko zaila da biak elkartzea.

Ikusten denez, arazoa luzea, konprometitua eta zaila izan daiteke. Gogorrina, ordea, erabakirik ez hartzea da, eta utzi eta utzi, inoiz arazoari branka eman gabe.

Zer gertatuko da azkenean? Egingo al da? Ez da egingo? Orain egina dagoen dika berari puska bat kenduko al zaio? Edo espigoi berari moztuko zaio puska? Eritzi guzti hauek pil-pil dabiltzala, esan behar...

Jaietako ale berezian, 18n. orrian, SIADECO-ko zuzendariak idazten zuenez, garbi dago herri bateko ekonomiaren ekilibrioa bihitu behar dela. Honela dio arrantzari buruz: "Hondarribiaren kasuan gauza jakina da arrantzak izan duen eta, bere arazo larri eta guzti, gaur egun ere duen garrantzia. Sektore honek atentzio berezia merezi duela esan beharrik ez dago Hondarribiko ekonomia aldetik, eta ezin dela inolaz ere sakrifikatu beste sektore batzuen alde".

Ikuspegi hau oso interesgarritzat jotzen dugu une honetan, eta eztabaidarako aportazio lagungarritzat.

1986ko azaroko alearen azala

**Zein da Euskara Batzordetik aldizkariaren ibilbide luzeari buruz egingo zenukeen balorazioa?**

Harrerari dagokionez, aldizkariak jendearen artean oso harrera ona izan duela esan behar da, berehala agortzen da eta datorren urtetik aurrera kopurua handitzeko asmoa dugu. Harpidetzari dagokionez, eskatzen duenari aldizkaria bere etxera dohainik bidaltzen zaiola esan beharra dago, baina horretarako norberak eskatu behar du, horrela interesa duela erakusten baitu. Gaur egun 772 harpidedun ditugu; 594 Hondarribian jasotzen dutenak eta 178 Hondarribitik kanpo.

Edukiari erreparatuz, zenbait atal hasieratik mantendu dira izen berarekin edo izena aldatuta, hala nola, elkarrizketa (blagan), herri giroa, kirola, etab. Jende askok lehen begirada demografiari ematen dio eta lehiaketak ere arrakasta handia du, saria oso erakargarria baita.

Euskara mailari, kalitateari eta estiloari buruzko zenbait kritika jaso izan ditugu, baina horiek ere beharrezkoak dira eta hobetzen saiatzen gara. Hondarribiko euskarari ez dakit ekarpen handirik egin izango dion aldizkariak, oro har, batua erabiltzen baita, baina bertako zenbait kolaboratzailek beren artikuluetan Hondarribiko hizkera erabili izan dutenetan bere horretan argitaratu da. Hor daude, Txomin Sagarzazuk herritarrei egindako elkarrizketak, Lurdes Zubeldiak idatzitako zenbait artikulu -aurten Euskara Zerbitzuak liburu batean kaleratu dituenak-, eta duela urte batzuk Beñardo Lazkanotegik Senegaletik bidaltzen zituenak. Bestalde, Juan Antonio Letamendiak eta Txomin Sagarzazuk Hondarribiko Euskarari buruz idatzitako zenbait artikulu ere argitaratu izan dira.

**Gerora begira nola ikusten duzu Hondarribia aldizkariaren, eta, oro har, herri-aldizkarien etorkizuna?**

Ni ez naiz aditua gai horretan, baina Euskal Herrian gero eta herri-aldizkari gehiago dago, eta horietako batzuen inguruan telebistak edo bestelako hedabideak ere sortu dira; beraz, herri edo eskualdeetako hedabideak indarra hartzen ari direlakoan nago.

# Nola hasi ginen aldizkaria egiten 1986ko martxoan

## Heuskara, ialgi adi kanpora (Bernad Detxepare)

"Poz haundia ematen digu euskara suspertzeko aldizkari berria ateratzera goazela jakiteak. Euskararen udal-azpibatzordea izango da bere egilea, eta, udalaren babesean, hilero argitaratzeko asmoz jaiotzen da. Egia esan, gure euskara indartzeko egin daitezkeen lan guztiak gutxi izango dira. Horregatik, Udalak berak eman behar ditu, eta ematen saiatzen gara, erraztasunak eta urrats sendoak bide horretan. Euskara bait da gure herriaren eta gure herriko hizkera, eta hala irautea nahi dugu". Honelaxe eman zion hasiera HONDARRIBIA aldizkariaren 1. alearen 1. orriari, 1986ko martxoan, Alfonso Oronoz alkateak.

Ordurako, zinegotzi talde batek, euskarak herrian zeraman egoerari buelta eman nahirik, antolatua zeukan udaletxean 'Udal euskara-azpibatzordea'. Taldearen arduradunak, Joseba Andoni Garaialde zinegotziak, galdegin zigun Fermin Olaskoaga eta Mikel Zuazabeitiari euskarazko aldizkari herrikoi bat argitaratzearen enkargua: "gure herriko biztanleei euskaraz bizitzeko laguntza emateko, eta euskararen bizitza bultzatu eta suspertzeko… Aldizkari honek eragin handia izan dezake gure herrian: eragina euskararen alderditik, noski, euskara hutsean izango baitda;  eta eragina, jendeak irakurtzea lortzen badugu. Hauxe baitda kasu honetan daukagun helburua, hondarribiarrak euskaraz jartzea".  (HONDARRIBIA, 1. alean)

Helburu hain ederrari ezin ezetzik esan. Pozik heldu genion lanari. Baina, nolako aldizkaria egin? Zerotik hasi behar, ez baitzegoen, garai hartan, euskarazko herri aldizkaririk inon. Guk, behintzat, ez genuen ezagutzen. Beraz, hamabi orrialderekin hasiko ginen; eta 36 orrikoak herriko jaietan eta Gabonetan. Herriko albisteak, garaian garaiko arazoak, argazki zahar eta berri, euskara erraza, eduki erakargarriak… Hori izango zen hartu beharreko bidea. Orain, hogei urte geroago, uste dugu asmatu egin genuela, gure atzetik arduratu zirenek bide bera jarraitu zutelako neurri haundi baten.

Sail iraunkorrak finkatu genituen gero: Azala (Enrike Lekuonak), Editoriala, Oharrak  (euskarazko meza orduak, txandako okindegiak eta botikak, euskarazko irratiak), Nekazaritza (Fermin Urtizbereak), Herri Giroa (hilelebetero herriko albiste bereziak), Gure Pertsonaia (Mikel Zuazabeitiak), Gogoetak (Lupe Artolak eta Martin Ugaldek), Kultura (Maribi Mariskalek eta Juan San Martinek), Eskoletako Orria (Loli Gartziak eta Anuntxi Lazkanotegik), Arrantza (Andres Olaskoagak), Herri Demografia (Fermin Olaskoagak), Kirolak (Ramon Larruskainek eta Juanjo Maritxalarrek), Eguraldia, aireportuko datuak (Xabier Agirre) eta Udaleko albisteak. Kolaboratzabaile hauetaz gainera, beste 60 lagun baino gehiagok idatzi edota banatu eta saldu zuten hilero aldizkaria (16. alean geratu ziren jasota, ez guztiena tamalez, baina bai gehienen izen-abizenak). Udaleko euskara itzultzailea, Koro Eraso, izan zen, baita ere, kolaboratzaile eta, bide batez, udalarekin bitartekari berezia.

### Euskararenganako zaletasun beroa

Udalak ez zuen finantziatu aldizkaria. Konprometitu ginen, beraz, aldizkariak 50 pezetetan saltzen, horrela udalari gastuak arintzeko. Udalak berak, salmenta ondoren geratuko zen zorra bakarrik ordainduko zuen. Den-dena egin genuen beti musu-truk: kolaboratzaileen lanak handik eta hemendik jaso, Hispano Oliveti txiki baten mekanografiatu inprimatzera eramateko, argazkiak egin, Donostiako fotokonposizioko tailerrera eta Irungo inprimategira eraman eta ekarri, maketatu, ea ongi zegoen errepasatu, zuzendu, dendaz denda banatu, salmentako dirua jaso eta udaletxera eraman, etabar, etabar. Guadalupeko nobenara ere behin baino gehiagotan joan ginen aldizkariak saltzera, eliz atari ondoan mahaitxo bat jarrita ikurriñarekin, urrutitik ere ikusi zedin. Denek egin genuen musu-truk, eta gustura, bakoitzak bere lana. Berdin, aldizkaria hilero banatzen zutenek eta saltzen zuten dendariek ere. Euskararenganako militantziak bultzatzen zigun talde guztiari, eta pozik egiten genuen egin beharreko guztia.



Fermin Olaskoaga eta Mikel Zuazabeitia, aldizkariaren haserako egun gogor haieta-ko batean

Diruaren loturarik gabe lana egiteak ematen duen askatasunaren fruitua izan ziren HONDARRIBIA-ko lehenengo 16 ale haiek. Aldizkari xumea, baina bizia, konprometitua eta librea izan zen. Letra txikia bai, 12 orrialde besterik ez, baina saiatzen ginen irakurgarria egiten. Horregatik, esker ona agertu zigun taldeari Udal euskara azpi-batzordeak. Herriaren aldetik, berriz, harrera ezin hobea izan zuen. Ale asko saltzen ziren hilero. Lortu genuen jendea hurrengo alearen zain egotea. Eta, gainera, irakurle dezente hurbildu zen laguntzera, kolaboratzera, argazkiak ekartzera eta ideiak ematera. Euskaraz irakurtzen hasi zen herriko jendea. Betetzen ari zen, beraz, sorrerako helburua. Eta horrela iritxi ginen 1987ko irailan HONDARRIBIA-ren 16. aleraino.

Baina…

Bada beti 'baina'ren bat, eta gure aldizkaria ere ez zen hortik libratu. Udalerako hauteskundeak iragan berriak ziren (1987ko maiatzean). Aurreko ale baten, guretzat printzipio etikoak ziren oinarri batzuk aipatu genituen udaleko egiturei eta funtzionamenduari buruz. Idatzi genuen, besteak beste, "Udaletxea HERRIKO ETXEA bihurtu behar da. Marfilezko dorrea izatetik, benetako 'herriko etxea' izatera etorri behar du… Bestaldetik, modan jarri dira orain zorioneko paktoak, hau da, alderdi pare bat elkartu, eta bien artean bakarrik agindu, udaletxeko beste alderdi politikoak baztertuz. Hau disparate bat da, zeren Udala zinegotzi guztiek osatzen dute, eta ez da egokia eta zuzena zinegotzi batzuk guztiz baztertuak edukitzea, azkenengo zortzi urte hauetan gertatu den bezala", eta honelako beste esaldi batzuk. Laster ikusi zenez, min egin zien editorial honek zinegotzi berri batzuei, eta, horren ondoren, udalak aldizkariaren ardura modu txarrean guri kendu eta beste batzuen eskuetan jarri zuen, 'guk pirata gisa jokatu genuela' esanaz. Honela amaitu zen, beraz, aldizkariaren lehenbiziko aroa. Harrez gero, udalak jarri zituen sosak.

Gure kolaborazioa ez da faltatu izan, hala ere, geroko HONDARRIBIA-ren ale askotan. Hala nola, herriko abizen ugarienen zuhaitz genealogikoak, arbaso zaharrenetatik gaurdaino, argitaratu genituenean (Tife, Iridoi, Sagarzazu, Lazkanotegi, Errazkin, Lekuona, Ugarte, etabar), edota Siadeco-ren soziologiko ikerketari buruz idatzitako artikuluekin, edota Demografia, Arrantza, Eguraldia, eta Liburutegiaren arloetan, besteak beste.

1986an apal-apal hasi zen aldizkari harek hogei urte bete zituen iragan udaberrian. Orain, azaroan, 192. zenbakira heldu da. Zorionak! Baina…, bai, hemen ere 'baina' batekin aurkitzen gara. Ale asko dira 192. Pozgarria da. Baina 20 urte hauetan beste hiri bat bihurtu da Hondarribia. Ze hiri? Nongo hiria? Euskal Herrikoa? Ze proportziotan handitu da Hondarribian euskaraz irakurtzen dugunon eta euskaraz hitz egiten dugunon kopurua? Hara hor arazo txol latza eta larria. Euskaldun sentitzen garenok aztertu beharrekoa eta adarretatik heldu beharrekoa. Hor dago koxka.

**Fermin Olaskoaga eta Mikel Zuazabeitia.**

# Ondarribi´tik-Hondarribira



**“Helburu nagusia ez da aldatu, herritarren berri izan eta bizi”**

Xabier Gezala

Hogei urte bete ditu gure herri aldizkariak. Hogei urte hilero hondarribiarrei hirian gertatutako guztiaren berriemailea. Urteak joan, urteak etorri, 1986tik gaur egunera herriaren ahotsa izan den aldizkaria. Baina aurten hogei urte bete dituen aldizkariak, izan zuen bere aurrekoa, 1958 eta 1959. urteetan 34 ale argitaratu zituen ‘Ondarribi’ aldizkaria izan zen orduko hondarribiarren berriemailea. Orduan ez zuen Udalaren babesik, lagun batzuen artean egiten zuten aldizkaria izan zen eta Oargi-Kerizpe Elkartea zen dinamizatzaile nagusia, Hondarribiko Eliz Nagusiaren babesean sortutako elkartea. Bere lehen zenbakiak 1958.eko martxoaren 1ean ikusi zuen argia.

Artikulu gehienak gaztelaniaz idazten ziren, baina euskarak bazuen bere lekutxoa, eta lehen ale hartan hiru artikulutxo gure hizkuntzan agertzen ziren. 1958.urtean gaudela kontuan eduki behar dugu. Hurrengo ataletan euskarak indar gehiago hartu zuen, eta bertan sekulako firmak agertzen ziren, Satarka, Bordari…

Orduko Ondarribik baditu, gaurkoarekin konparatuz, ezberdintasun nabarmenak, bata hizkuntza, edo hobeki esanda, hizkuntzak, orduan gaztelania eta euskara erabiltzen ziren eta gaurkoan berriz euskara da hizkuntza bakarra. Hilabetekaria dena gaur egun, garai hartan hamabostekaria zen. Gaur egun dohain banatzen da, ordukoa ordaindu egiten zen… Eta horrela jarraitu genezake, baina biek gauza bat dute berdin-berdina: herritarrentzat gertueneko informazio iturri izan direla, eta izango direla.

Publizitatea, gehiena erdaraz, baina goxoa eta garaikoa. Astero Elizalde zinemako programazioa, baita Irungo zineetan ikusgai ziren filmak ere. -Salome, 12 hombres sin piedad, Anastasia, Tormenta sobre el Tibet eta abar… Garaiko filmak herriko antzokian.

Bordarik kapitulu berezia mereziko luke azterketa hau egiterakoan, "Itxas-Txori", "Iparraize", "Biotznar", "Larrunar" eta abar izenez sinatzen zituen bere artikulutxoak. Beti bere iritzi sakon eta txukunarekin. Euskara eta gaztelania tartekatuz. Batzutan poeta eta bestetan kronista, baina beti ere Fernando Artola, mila izen, baina nahi bakarra: herritarrentzat informazioa…
Lehen goitizenak aipatzen nituen baina hona hemen "Ondarribi" aldizkarian parte hartu zutenen izen eta abizenak:
José Ramón Agueda, Pedro Amunarriz, Francisco Amunarriz, Javier Aramburu, Jesús María Aramburu, J.J. Aranjuelo, José Ardaiz, Arocena, Fernando Artola, Rafael Artola, Bonifacio de Beizama, Sabino Echaide, Nemesio Echaniz, Manuel Echeveste, Antonio Eguilegor, Josefina García, Manuel María García, Fernando Garijo, Guillermo Gojenola, Alberto González, Godo Hernandorena, Ramón Iribarren, Laureano Iza, María del Carmen Jimeno, José María Lafaja, Pedro Lapitz, Juan José Lapitz, Gregorio Larrañaga (Pinglianeko Apezpikua), Cayo Lasa, Francisco Lizarazu, Jaime Maiz, María Martínez, Joaquín Odriozola, Trinidad Ortiz, Claudio Sagarzazu, Dionisio Sagarzazu, Angel María Salaberria, Marisa Salaberria, Sanchez Gil S.J., Javier Sarasola, Martín Ugarte, Luis de Uranzu, Ladislao de

# Hondarribia aldizkaria duela 20 urte, eta duela 50 urte ere!!!!



**"Gordetzeko moduko altxorra da Ondarribi'ko Izparrak"**

**Koldo Ortega**

Hain maitea dugun Hondarribia aldizkariak 20 urte betetzen dituen honetan, asko esan daiteke aldizkariari buruz. Bere sorrerako urteak zailak izango ziren, ziur nago, eta orain, teknologia berriekin dena errezago dela ere ziur nago, baina gaur egungo merkatua eta ordukoa oso desberdina. Asko aldatu da dena, orduan aldizkari bat zegoen, gaur egun dozenaka ikus ditzazkegu, eta hori, jende askok egin duen lanari esker izan da, baita Udalak eta bere Euskara Batzordeak egindako esfortzuari esker, beti konfidantza handia izan baitu aldizkarian.

Duela 20 urteko aldizkari bat hartzen badugu, eta duela aste batekoa, aldaketak oso nabariak direla ikusiko dugu, normala den bezala. Baina zer gertatzen da duela 20 urteko bat duela 50 urteko beste batekin konparatzen badugu? Ez zuen 'Hondarribia' izena aldizkari hark, baina bai Ondarribi'ko Izparrak. Don Joxe Ormazabal zenak zuzentzen zuen aldizkari hura, eta zergatik ez, egungo (edo duela hogei urteko) aldizkari haren aintzindaria dela esan dezakegu.

### Ondarribi'ko Izparrak aldizkariaren gainean

Gure hitzak erabili beharrean, gai hauetan jakituna den Javier Diaz Nocik EGAN aldizkarian (LIV. Alea, 2001, 97-124 orriak) zera zioen: "1956an agertu zen Hondarribian. Acción Católica-ko gazteen bilera batean, Hondarribiko apaiza zen Joseba Ormazabali bururatu zitzaion atzerrian zeuden neska hondarribiarrentzako aldizkaritxo bat kaleratzea (neska gehienak Congregación de las Hijas de Mara-ko mojak ziren). Makinaz izkribatu eta gero mimeógrafos kopiatutako orri batzuk ziren, baina laister herrian bertan banatu zen aldizkaritxoa, bertako berri asko, irakurlearentzat oso gertuak baitzekartzan".

Don Joxe Ormazabalek Hondarribia aldizkariaren 92. alean (1998ko uztaila) egindako elkarrizketa batean esan zuenez, "haseran bi nesken laguntza izan zuen aldizkaria egiteko, baina berehala bakarrik geratu zen lanean. Herrian gertatzen zen guztia kontatzen saiatzen nintzen, jaiotzak, ezkontzak, heriotzak, pasadizoak, arrantzako datuak, poesiak, eliz-kantak".

Hala ere, aldizkari harek ez zuen bizitza oso luzea eduki. 1959. urtean, Don Joxe Ttikiya, hala ezagutzen baitzitzaion, gaixo jarri zen eta inork ez zuen jarraitu lanarekin. Hala ere, argitaratu zen hiru urtetan, herrialde askotan irakurri zen. Egilea bera arduratzen zen Frantzia, Belgika, Ingalaterra, Ipar Amerika, Venezuela, Argentina, Zaire eta Senegalera heltzea.

San Gabriel egoitzean gordetzen dute aldizkari haren originaletako bat. 1959ko 'Ilbeltza'koa da, urtarrilekoa, agian argitaratutako azkena. Hamabi orrialde ditu, makinaz idatzita eta ongi landutako orriak gainera. Erdara eta euskara erabiltzen dira, eta era guztietako kontaketak burutzen dira: euskarazko eliz-kantak, elizarekin loturiko berriak, txisteak…

Gordetzeko moduko altxorra, dudarik gabe.

# Hogeigarren urteburua...



**“Hogei urtetan, milaka gertakizunei ateak ireki dizkie Hondarribia aldizkariak”**

## Martin Iturbe

Hogeigarren urteko udaberriz jantzia datorkigu atarira, eskura zaigun Hondarribia aldizkaria. Egokia dirudi, beraz, gainbegiradatxo bat zuzen diezaiogun aldizkaria berari, bai eta hogei urtetako bere bizialdiari ere.

Aldizkariak zutik iraun duen denborari buruz hauxe esango nuke:pozgarria dela gisa honetako aldizkari batek horrenbeste denboraz iraun duela ikustea. Ezagutu izan ditut herri batetan baño gehiagotan, ilusio haundiz horrelatsukko aldiskariak argitaratzen hasi eta, luzarora gabe, itzaliak gertatzen. Ez da txantxetako gauza iraupenaren sokari eten gabe eutsi ahal izatea.

Beste alde, gauza askotan gerte ohi den bezala, euskerari buruz ere berdintsu geratzen dela, hitzak eta zalapartak ugari, hizkuntza gorde, zaindu eta landu beharra dela oihukatuz, baiña gero, ekintzaren ordua datorrenean, esku gutxi lanerako.

Gurean ez da horrelakorik gertatu. Aldizkariak osasun onez aurrera jarraituko duen azterren guztiak piztuak ikusten ditut. Alor honetan, eskura zaizkigun aukera guztiak. Dena den, gure herrian, hemen eta han, euskerarren alde egiten diren ahalegin ugarien erdian, egokitasun jatorrez agertu da herri-maila zabalean, oso osorik euskeraz idaztia datorkigun aldizkaria. Lanbide hau antolatu, korapillatu, gainberatu, josi eta txukuntasunez argitaratzeko eginkizuna isiltasuneko lanean burutu dutenen ardura berdibgaitza aipagarri deritzait.

Hondarribiko herriari eta bertako biztanleori dagozkigu hainbat alderdi ukitu eta argitatzeada, nere iritzian beste aberastasun edergarria. Aldizkarian aipatzen diren hemengo gertakisunez, herri osoa enterazten gara, bestela ezjakiñean geratuko baigiñatekeen. Hogei urteren buruan, milaka gertakizunei ateak ireki dizkie Hondarribia aldizkariak.

Erabili diren gaiei begira, ugaritasun oparoan eskeini zaizkigu era guztietako gaiak.

Interesgarria, egiaz, gure artean diren pertsona askok, beren bizitzako berri emateko izan duten aukera, beraieri egin izan zaizkien elkarrizketei esker. Eta guretzat bide egokia, egunonak emateaz bakarrik elkar ezagutzen genuenon historiaren berri jakin ahal izateko. Guztiok izan dugu eserleku atal honetako aulkian. Gizaseme edo emakume, ospetsu edo xume...harrigarriak jakin ditugu batzuek eta besteek isillean zituztenak, eta estimagarri bihurtu, jakin ditugunak jakinda. Atal hau ere oso kuttuna gertatu zaigu.

Herriko hamaika txoko ezezegun ere, eta orain artean arrotz zitzaizkigunak, zein zer den eta non kokatuak dauden jakin genezan, billaketa-lanean jarri gaituzte, halakoxe sari goxo baten truke. Oso polita.

Erlea lorez lore xurga-lanean aritzen den bezala ari naiz, nere irizpidea aldizkariari buruz ematen. Izpi batzuk besterik ez ditut aipatu, beraz, egin zaidan eskeari erantzun ahal izateko.

Izpi batez aurrerago joateko, aldizkariak azken-orrialdean eskeintzen diguna aipatuko dut.Herriko biztanleen gora-beherak, alegia. Horixe:”gora-beherak”:jaiotzak, heriotzak, ezkontzak...Garrantzi haundiko atala da hauxe ere. Aldizkariaren pausaleku eta gaillur joko uke, azken orriak burutzen duena.

Eta non dira, aldizkariari zutik eusteko parte hartu dutenak? Zenbat idazlan ez da argitaratu hogei urteren buruan, hillabetero hogeita hamarorrialdez jantzita datorren liburuxka honetan!!!Ale bakoitzean, 30-35 gai ezberdin agertu izan dira, eta garbi dagoenenz, esku askoren partaidetza eskatzen du horrek.

Bakoitzak gerue gari-alea jarri dugu, eta, denon artean, otordu bikañak egiteko opil gozoz aberastu dugu gure jakin miñaren mahaia.

Askoren artean ardurak banatzean, azkekenean, eskura zaigun hau loratu da. Xumea, zabal, ugarikoia, herrikoia, guztiona...Egiña den egiña geratzen da.

Egia esan, ale berri bat eskura zaidan bakoitzean, hasi eta buka, eserialdi bakarrean irensten dut. ehendik ez nekizkien gauza askotaz enteratzen naiz. Beste askori ere gauza berdintsua gertatzen zaiela badakit. Iraun dezala biziadi luzez aldizkari honek. Hillean behin “udaberri” gerta bedi aldizkariaren orri-aldeetako lorategian.Halaxe nahi nuke, eta halaxe izangod ela uste dut. Zorionak, joan diren hogei urte hoieri.

# 20 urteko ibilbidean te

**Hogei** urtek gauza askotarako balio dute. Aldaketa ugari gertatzen dira guztion bizitzan, kaleetan, automobiletan, ohituretan, eta Hondarribia aldizkariari dagokionez, aldizkarian bertan ere.

Ikusi besterik ez dago nola zen 1986 urte hartan argitaratutako lehen alea, eta eskuartean duzun hau, hogei urte beranduago argia ikusten duena. Teknologia aldetik aurrerakuntza ikaragarriak eman dira, ordenagailuak, internet, argazki kamera digitalak, inprimategiak, banaketa zerbitzua…

Teknologia berri hauek biziki errezten dute kazetari, argazkilari, zuzentzaile, inpresore eta gai honetan sartuta dauden guztien lana, eta ez genuke gezurrik esango duela 20 urte aldizkari bat kaleratzeko lan gehiago egin behar zela aipatuko bagenu, eta lana gehiago ez bada, zailagoa bai gutxienez.

Ikusi eta ondorioztatu zuen begiekin zer nolako aldaketak eman diren gure aldizkarian 1986tik hona.


10 HONDARRIBIA

KIROL TXOKOA

KIROLAK

SASKIBALOIAREN HAZIA EREITEN

AJEDREZA MARLAXKAN

ATLETISMOA

MARLAXKA ZIKLOTURISTAK

GOLF

FUTBITO

BESTE KIROL BATZU

AROZENA - ALBISTUR
Harategia
Zuloaga kalean Tel. 641860-641331
HONDARRIBIA

JUAN ALKAIN JAUREGI E.A.
"SUPRA" eta "DE DIETRICH" en banatzaile bakarra
Mendelu - Tel. 642025 - HONDARRIBIA

EROSLE
Santiago kalean
Tel. 641540
HONDARRIBIA

## 1986ko kirol txokoa

Duela hogei urteko Hondarribiko kirolaren berri ugari biltzen ziren orduan. Denak orri berean sartuta, oso orrialde dinamikoa lortzen zen, eta adibide honetan ikus daitekeenez, zazpi kirol diziplina desberdin jorratzen dira, labur bada ere. Emakumezkoen saskibaloiko taldea (orduan ere Nieves Alza eta Jose Mari Izagirre zeuden buruan) Gipuzkoako txapeldun suertatu berria zen.

Atletismoak gaur egun duena baina indar gehiago zuen, Joseba Sarriegi aita-semeak notiziagai ziren, aita operatu berria zelako eta semea Ameriketako Estatu Batuetan zegoelako lasterketetan maila bikaina eskainiz. Hondarribian ere Marlaxka Elkarteko Xake Taldea, Joxe Mari Olazábal golf jokalaria eta Hondarribia Kirol Taldeak antolatu zuen Lehen Futbito Txapelketa. Urteak joan urteak etorri, hor dabiltza elkartekoak Soroetako txapelketa antolatzen.

## Poliesterrezko lehen arrantzontzia

Gaur egun itsasontzi gehienak poliesterrezkoak dira, hori baita etorkizuna. Hondarribian eraiki zen lehena duela 17 urte egin zen, Olaziregiren untziolan. 'Euskal Herria' izenekoa, Elantxobeko Iñaki Arengo armadorearen enkargua izan zen. Diseinua eta eraikuntza 9 hilabetetan egin zen, eta kostua orduko 100-120 milioi pezetetakoa izan zen. Bere neurriak, 24 metro luzeran eta 6,40 zabaleran, motorrak 600 zaldi zituen eta poliester hutsez egindakoa zen. Materiala Burgosen erosia izan omen zen egurra baino askoz iraunkorragoa zelakoan eta mantenimendua merkeagoa.


12 HONDARRIBIA

POLIESTERREZKO LEHEN ARRANTZONTZIA HONDARRIBIAN EGINA

# eknologiaren garrantzia



16 HONDARRIBIA

HONDARRIBITARRAK GABONETAN

Gabonak gainean daazkagula aprobetsatu dut hondarribitar zeinbaitzuri galdera batzu egiteko: zer suposatzen duen Gabonak berarentzat, nola ospatu behar dituen, zeinekin, gustokoak dituen ala ez, zergatik, benetarko zentzu erlijiosoa galdu ote duen ala ohituragatik ospatzen den, Gabonetatik gustokoen duen eguna zein den e.a.

1. Mari Karmen Urtizberea. Baserritarra.

2. Beñardo Elorz. Ikaslea.

3. Joakin Olaskoaga.

4. Lupe Etxebeste. Etxekoandrea.

5. Fatima Guruzeta. Psikologoa.

6. Jabier Iriazabal.

7. Sebastiana Agirre.

## Hondarribitarrak gabonetan

Duela hamalau urteko Gabonetako aldizkarian egun berezi hauek Hondarribiarrentzat zer suposatzen galdetu genien hainbat hiritarri. Inkesta interesgarria izan zen, ia Gabonak zer suposatzen duten, nola ospatu behar dituen bakoitzak, zeinekin, gustokoak dituen ala ez, benetazko zentzu erlijiosoa galdu ote duen ala ohituragatik ospatzen diren, gustokoen duen eguna zein den…

1992. urtean egin bazen ere, aurten ere errepikatzeko moduko inkesta bat litzateke, interesgarria izan bait daiteke herritarrek zer pentsatzen duten ikustea Gabonei buruz.



HONDARRIBIA/68 KIROLA 12

UNAI EMERY: "EZ DUT AUKERARIK IZAN ERREALEAN"

Bi hondarribiar izan ditugu 95/96 denboraldian "Real Sociedad"ean. Kote Pikabea eta Unai Emery. Baina bigarren honek maletak hartu eta beste talde batera joan beharko du datorren denboraldirako. Urte osoan zehar jokatzeko aukera gutxi eman diote, zelaierdian habilezi haundiko jokalari erasotzaile honek bere balioa erakutsi nahi du eta estatu mailan toki bat bilatzen saiatuko da. Errealean izan duen esperientzia kontatzeaz gain, futbolari buruzko iritzia azaldu digu.

**H. Zer dakizu etorkizunari buruz? baduzu eskaintzarik datorren denboraldirako?**
U. Oraindik ez dakit ezer. Eskaintzak baditut. Eibartik deitu didate, baina nire karrerarako zerbait hobeagoa ateratzen ote den itxoingo dut.

**H. Hondarribitik kanpora joateko prest egongo zinateke?.**
U. Noski, noranahi joateko prest nago.

**H. Nolakoa izan da Errealean izan duzun esperientzia?**
U. Denboraldia gaizki hasi zen, baina bigarren zatian gauzak moldatu ziren eta azkenean taldea nahiko ongi gentu da. Ni neu ez nago oso pozik. Gutxi jokatu dut. Sei partidu bakarrik: bost ligan eta bat kopan. Ez dut aukera haundirik izan eta horregatik ez nago oso pozik.

**H. Zer iruditu zaizu errealak azken orduan baja ematea?**
U. Ez zait ongi iruditu, nire ustez Errealean jokatu dezakedalako. Zurrumurruak zioten beste talde batera eraman behar nindutela, baina gero Errealera itzultzeko moduan. Eta ez da horrela gertatu, besterik gabe baja eman didate eta desilusio haundia eraman dut.

**H. Joan den abenduan beste talde batera jouteko egokiera izan omen zenuen. Zergatik ez zenuen eskaintza hura onartu?**
U. Abenduan esan zidaten bigarren mailako talde batera joan behar nuela, baina nik jokatzeko esperantza nuen. Ongi entrenatzen nuen eta nire ustez oso momentu onean nengoen. Jabo Irureta etorri zenean geratzea erabaki nuen eta ez zait damutu. Baina ordutik lau partidu besterik ez dut jokatu eta hori oso gutxi da.

**H. Zein entrenatzailerekin egon zara hobeto, Salba Iriarterekin ala Jabo Iruretarekin?**
U. Biekin gutxi jokatu dut. Talde titular bat egina zegoen eta ez zuten aldaketa haundirik egiten ez batak eta ez besteak. Horregatik niretzat berdin izan da batekin nahiz bestearekin, biek aukera berdinak eman dizkidate.

**H. Lesioak eraginik izan dute zure karreran?**
U. Hogeita bat urte nituela lesio bat izan nuen. Bost hilabete egon nintzen behatz bat hautsita. Sendatu eta jokatzen hasi orduko belauna puskatu nuen, eta ondorioz urte bete jokatu gabe egon nintzen belauna hazitzen zitzaidalako. Hau guztia pasa ondoren denboraldi ona egin nuen Sansen eta Errealera igo nindunen.

**H. Zer iruditzan zaizu Errealak azken denboraldi hauetan fitxajeak egiteko daraman politika. Aurten bost atzerritar egon dira. Horrek ez al die kalterik egiten bertako jokalariei?**



## Unai Emery Errealeko jokalari hondarribiarra

Duela hamar urte egin zion Juan Ramon Larrartek elkarrizketa hau Unai Emery orduan Errealeko jokalari zenari. Gaur egun Bigarren Mailan dagoen Almeriako entrenatzaile arrakastatsua, Lehen Mailara igotzeko postuetatik hurbil dabil. 1996an jokalaria zen, eta bere ustez, Errealak aukera gutxi eman zizkion futbolean aritzeko, eta ordutik aurrera ibilbide luzea egin zuen jokalari bezala, beste talde batzuren artean Ferrol, Toledo eta Lorcan jokatu zuelarik. Azken honetan entrenatzaile izan zen ere.

Emery ez zen batere ados agertzen Errealak zuen atzerritar fitxaketen politikarekin. Bere ustetan, "kanpoko jokalari gutxi eta onak fitxatu behar ditu eta ez asko eta erdipurdikoak. Goi mailako atzerritar batzuk fitxatu ditzazke eta beste guztiak etxekoak eduki". 10 urte igaro dira eta pil-pilean dagoen gaia.

# B i T X i K E R i A K



Aritz aldizkaria jaio zen urtean

## Aldizkariaren lehen jaiotza

**Duela 20** urte aldizkari hau jaio zenean, lehen aletik herrian jaio eta ezkontzen ziren guztiak aldizkariaren zati izateko proposamena egin zen. Gure artetik joan direnak ere agertu dira hilero, baina oraingo honetan bizitzaren argia ikusi eta beste pertsona batekin batzea erabaki zuten bi protagonista bilatu nahi izan ditugu. 1986an argitaratu zen Hondarribia aldizkari hartako 'Demografia' atalean agertzen diren lehen jaiotza eta ezkontza dira hain zuzen ere.

Aritz Amunarriz Hondarribiko semea da, gurasoekin bizi da eta arreba bat dauka. Bere herriaz, inguruaz eta lagunez gozatzen duen horietakoa da. Bidasoa GBLHIn (lehengo Sindíkala) Instalakuntza Elektroteknikoak ikasitakoa da eta Irunen lan egiten du egun. Futbola oso gustokoa du eta Hondarribia Futbol Elkarteko kide da, zelai erdiko jokalari aparta delarik.

"Aldizkari honetatik egindako gonbidapena sorpresa handia izan zen neretzat. Aldizkaria ezagutzen dut, eta interesgarria da Hondarribian tankera honetako aldizkari bat edukitzea, gauza desberdinak ikusi ditzazkezulako, egunkarietan elkarrizketak beste era batetakoak direlako". Aritzek bere lagunekin komentatu zuen gonbidapenari bai edo ezetz esatea, "eta denetatik esan zidaten kuadrilan, batzuk baietz besteek ez zekitela, baina gehienoi ongi iruditu zitzaigun gazteoi toki bat egitea aldizkari berezi honetan".

Ziuraski Aritzek, hemendik urte batzutara gogoratu egingo du elkarrizketatxo hau. 20 urte bete ondoren, bai gazte honek eta baita aldizkariak ere, ahalik eta bizitza oparoena izatea da gure desirarik handiena. Mila esker Aritz, zu bait zara gure hiriaren gazteriaren irudi ederra, baita aldizkariaren gaztetasunaren islada ere.



Aritz Amunarriz, gaur egun

## Joseba Goiogana, Amazoniako oihanean aldizkaria irakurtzen

**Hondarribia** aldizkariaren 772 harpidedunen artean, herrian bizi diren asko daude, baita inguruko herrietan, eta atzerrian ere. Horien artean egon da urte askota Joseba Goiogana. Pasionista izaki, gaur egun Urretxuko apaiza da, baina hogei urte luzetan Perun egon da lanean, Amazoniako oihanean. Han jasotzen duen hilero gure aldizkaria, "ilusio handia izaten zen neretzat iristen zen bakoitzean. Egunerokotasuna galtzen zuen, denbora luzea behar baitzen ni nengoen lekuraino heltzeko, baina oso interesgarria izaten zen herriko gauzak irakurtzea" dio Josebak.



Yurimaguas Amazoniar oihanean dago, Lima hiriburutik 500 kilometro iparraldera eginda. Han ibili da Goiogana lan eta lan Euskal Herrira bueltatu den arte. "Ilusio gehiena egiten zidana, argazki zaharrak ikustea zen, ni gaztetxoa nintzeneko garaietakoak, eta Hondarribia lehen nolakoa zen gogoratzen zidatenak".

Arrantzako berriei ere asko erreparatzen zien Josebak. "Gaztetan arrantzan ibilia naiz, eta horregatik arrantzari buruz ateratzen ziren artikulu guztiak interes handiarekin irakurtzen nituen".

Hortaz gain, Portuko argazkiak ikusteak, San Pedro kalea, Santa Maria Magdalenako plaza adibidez, zirrara berezia sortzen ziola ere aipatu zigun Joseba Goiogana pasiotarrak.



## Nekane Alkain Brasildik begirik kendu gabe

**ZORIONAK!!**

HONDARRIBIA aldizkariari 20 urte betetzen dituelako eta ESKERRIK ASKO Euskara Zerbitzuari aldizkari hori hilero Brasileraino bidaltzen didalako.

Atsegin handiz jasotzen dut nire herritik 10.000 kilometrora, nire herriaren izeneko aldizkaria, eta bertan irakurtzen dudan informazioaren bidez, nire sustraiak bizirik mantentzen laguntzen dit.

Aldizkariari esker jakiten dut herrian nolako berrikuntzak egiten dituzten, nolako ekintzak antolatzen dituzten eta beste hainbat gauza.

Argazkiak ere oso pozik ikusten ditut, bertan familiakoak edo ezagunak ikustea oso atsegina baita. Zenbaki batean nire aita atera zen, Kofradiako Abade Nagusi izan zen garaiak gogoratuz eta niretzat oso polita izan zen hor ikustea.

Bestalde, aldizkariak laguntzen dit nire euskara eguneratzen, beti gogoan izango dut erlijiosa eta misiolari izateko bokazioagatik Hondarribitik atera nintzenean nire aitak esandakoa: "BERRIAK IKASI ETA JAKIÑAK EZ AZTU".

Poz handia ematen didate nire herrian esaten didatenean "Ez duzu euskera ahaztu" eta 20 urte badaramatzat Brasilen.

Berriro ere ZORIONAK ETA ESKERRIK ASKO.

Nekane Alkain Olaskoaga
Hija de la Cruz
Rua Amor Perfeito 184
ILHEUS-BAHIA-BRASIL

# Euskarazko komunikabide lokalak: atzo eta gaur

## Asier Aranguren



Asier Aranguren,
Euskal Telebistako kazetaria

Asier Aranguren Euskal Telebistako kazetariak gaiari buruzko tesia burutu zuen 1999an. Denborak arrazoia eman dio.

**Euskarazko** komunikabide lokalek daukaten garrantzia aztertzerako orduan, gaian aditua den batengana jo dugu. Asier Aranguren, egun Euskal Telebistako kirol arloko kazetaria denak, 1999an Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle zenean euskarazko komunikabide lokalen gaineko tesia egin zuen eta.

Hala ere, berarekin mintzatu ondoren, argi uzten du "urteak igaro direla orduko ikerketa egin nuenetik, eta mundua asko aldatu da eta orduan egin nuen lanak balore zientifikoa galdu egin du. Gaur egun gai hori erabat alderatua daukat beraz ez naiz ausartzen gaur egun herri aldizkarien egoeraren berri ematen".

Arangurenek egindako tesia 1999ko udazkenean amaitua izan zen eta Euskal Herriko Unibertsitateko Ikusentzunezko Departamentuan aurkeztua. Unibertsitateak argitaratu egin zuen, eta 618 orrialdetako lan mardul eta osotu bat da. Nahiz eta gaur egungo teknologia iraultzak atzean utzi duen, beste gauza asko bezala, la non baten aurrean gaudela esan daiteke, eta herri aldizkarientzako luzatzen dituen proposamenak eta talde multimedien aldeko egindako apustua ikustea besterik ez da, hamar urte geroago hori baita etorkizuna.

Kazetariak herri aldizkariak, irrati eta telebistak aztertu zituen. Aldizkariei dagokienez, 46 aztertu zituen, Arrasate Press eta Ttipi-Ttapari arreta berezia jarri ziolarik. Tesiak herri aldizkariaren historiaren berri ematen du, ezaugarriak, nortasun juridikoa, finantziazioa, teknologia, banaketa… aztertzen dituelarik.

**Amaieran, zenbait ondorio ateratzen ditu Arangurenek:**

-Gipuzkoan eta Nafarroan argitalpen eredua egokia izan da eta Araba, Bizkaia eta Iparralden Udalek eta Foru Aldundiek laguntza gehiago eskaini behar dituzte.

-Herri-komunikabideek beren enpresa egitura hobetu beharra dute, hala kontabilitateari nola finantziazioari dagokionez. Horretan, autofinantziazioa behar bezala landu ez den bidea da oraindik, eta fundazioa izan liteke soluzioetako bat. Bazkideen figura ere ez da behar beste jorratu.

-Alde handia dago herri-aldizkari batzuen eta besteen artean, era guztietakoak daude, bai diseinuari zein maketazio ari denaz bezainbatean, baina, oro har, hobetu beharra dute.

-Lanean ari diren profesionalen egoera ere hobetu beharra dago.

-Euskararen ereduak ezin du bazter laga euskalkia, euskara batuaren eredutik gehien aldentzen diren euskalkien kasuan batik bat.

-Tokian tokiko komunikabideek teknologia berrien mundua arretaz segitu behar dute, eta beren produktuak Internet bidez zabaldu leku guztietara.

Tesiaren egileak lekuan lekuko enpresa multimediak sortzea ere proposatu du, herri-aldizkariak, toki-irratiak eta toki-telebistak erredakzio bat bera bana dezaten, eragin-kortasun sozial eta linguistiko handiagoa lortzeko.

Zazpi urte pasatxo igaro dira tesia egin zenetik. Teknologiak izan duen garapena ikusita, mundu bat dira zazpi urte hauek. Hala ere, Asier Arangurenen tesia aztertu ondoren, arrazoiaren jabe zela ohartu gara.

# Herri aldizkariak Euskal Herrian: hurbileko informazioaren garrantzia




**Gure** gizartean iadanik leku bat duten herri aldizkarien zabalkundeari buruz ikuspegi bat eman nahi genuke artikulu honen bidez. Hondarribia aldizkariaren 20. urteurrena del aeta, egokia deritzogu herri aldizkariek XXI. mende honetan duten garrantzia zer nolakoa den aztertzea.

Gaur eguneko euskarazko aldizkariek duten garapena inoiz izan den zabalena da eta beroien artean herri aldizkariek izan dute hazkunderik handiena. Hala dio Joxe Mari Muxika, Topagunea Euskara Elkarteen Federazioaren lehendakariak Euskonews&Media aldizkari digitalean idatzitako artikulu batean. Euskal herriko herrialde guztietan dago aldizkariren bat. Nahiz herrialde guztietan ez indar berdina eduki, errealitate zabaldua dela esan genezake. Kopuru aldetik, gutxienez 45 euskaraz idatzitako herri edo eskualde aldizkari badira. Irakurle aldetik harrera ona dute orokorrean eta horren ondorioz, herri aldizkarien fenomenoa asko hitzeginarazten duenetako gertakari bat da.

Aldizkari hauek Din A4 neurrikoak dira ia denak. Gehienek hogeitazortzi eta berrogei arteko orri kopurua izaten dute, herriko jaietako edo beste egun berezietako aleak izan ezik. Herriko jaietako aleak bereziak izaten dira: bai kolore aldetik, bai publizitate aldetik eta baita orri kopuru aldetik ere, urtean bi-hiru aldiz baino gehiagotan ez gertatu arren aldaketa hori. Ikus dezakegunez, gure Hondarribia bete-betean sartzen da parametro hauetan.

### Aldizkari batzuen antzinatasuna

Antzinatasun aldetik Baionan argitaratzen den Herria da zaharrena. Azkenengo gerra ostean berehala hasi zen, 1945ean hain zuzen. Beste aldizkari batzuk geroago hasi ziren argitaratzen eta asko dira desagertu ere egin direnak. Azpimarragarrienen artean Tolosako Anaitasuna 1950ean sortua eta 1975ean desagertua, Bilboko Anaitasuna 1953an sortua eta 1983an desagertua, Othoizlari 1954an sortua eta 1986an desagertua, Zeutzat 1956an sortua eta 1965ean desagertua eta Goiz Argi 1958ean sortua eta 1986an desagertua.

Baina garai hartan sortutako denak ez dira desagertu, Karmel 1951n sortuak, Zeruko Argia 1954an sortua eta gerora Argia izena hartu duenak eta Jakin 1956an sortuak, gorabehera ugari izan arren bizirik diraute. Herri edo eskualde aldizkari gehienak hamar urtez honuntza sortuak dira, bakarren batzuek hamabost urteak gainditu badituzte ere, Hondarribia kasu nabaria delarik.

### Herri aldizkarien tirada eta herrialdekako banaketa

Herri aldizkarien tiradetan alde handiak daude: batzuk 7.000 aleko tirada badute, beste batzuk 1.000 ale ingurukoa dute. Tirada hauek badituzte mugak eta muga garrantzizkoenak bi dira. Lehenengo muga aldizkariak hartzen duen eskualdeko biztanlegoa da, baina eremu horrek beti ez du mugatzen tiradaren kopurua. Askotan finantziatu ezinak mugatzen du aldizkariaren tirada, baita bere maiztasuna eta orri kopurua ere. Galde bestela topea zerk jarri dien hirietako aldizkarien kudeatzaileei. Finantziazio arazoa, aldizkari askorentzat oso larria gertatzen da.

Astekariek banatzen duten tirada 38.100 alekoa da. Hauetatik %76a Gipuzkoan zabaltzen dira eta bat bera ere ez Nafarroan eta Araban. Hamabostekariek banatzen duten tirada 26.900 alekoa da eta hauetatik ere, Gipuzkoan zabaltzen da %68a. Hilabetekarien

Herri aldizkariak Eusk




kasuan, banatzen den tirada 61.000koa izanik, Gipuzkoan %50a eta Bizkaian %34a zabaltzen dira. Hilabete baino gehiagoko tartearekin, bakanago alegia, argitaratzen diren aldizkariak ere hamar bat badira. Hauek ez ditugu aintzakotzat hartu aipatutako kopuruetan.

### Herrialdeen arteko aldeak

Herri edo eskualde aldizkarien banaketan alde handiak agertzen zaizkigu herrialde batetik bestera. Zabalkunde handiena Gipuzkoan dutela garbi nabaritzen da: bertan eginak eta zabalduak dira zortzitik sei astekari, zazpitik bost hamabostekari eta hilabetekari edo bakanagokoetan hirutik bat inguru.




Lehen esan dugun bezela herrialde batetik bestera alde nabariak daude. Batez ere Bizkaiko eskasia azpimarratuko genuke. Gipuzkoan 100 euskalduneko 8,65 astekari, 5,42 hamabostekari eta 8,74 hilabetekari zabaltzen dira. Bizkaian ordea, 1,46 astekari zabaltzen dira, 0,67 hamabostekari eta 5,85 hilabetekari. Araba Bizkaian antzera dago eta Nafarroan Bizkaian baino gehiago zabaltzen dira, euskal hiztun bakoitzeko.

### Gaztelaniazko prentsarekin alderaketa

Gaztelaniaz idatzitako prentsa irakurleak Hego Euskal Herriko audientzia potentzialaren %53,9ko esparrua du. Irrati entzuleak %55,2 eta telebista ikusleak %83,4. Orokorrean audientzia kopuru aldetik telebista ikusleek dute parterik garrantzitsuena. Herrialde batetik bestera ez dago nabarmentzea merezi duen besteko alderik. Telebista ikuslea da gorantzaka egiten ari dena eta irrati entzulea berriz, orokorrean, beherantzako joera duena, nafartarren artean batez ere.

Gaztelaniazko kopuruetara iristeko, euskarazko prentsaren zabalkundea biderkatu egin beharko litzake: egunerokoetan 41 aldiz, astekari eta hamabostekarietan 13,3 aldiz eta hilabetekarietan 5 aldiz. Honetaz ari garenez, kontuan hartzeko gauza da gaztelaniazkoen balizko irakurleak, euskarazkoenak baino 2,7 bider gehiago direla Hego Euskal Herrian. Baina hau kontutan hartuta ere, zabalkundean koska handia dago gaztelaniaz idatzitakoen alde.

### Euskara elkartei esker

Euskaraz idatzitako Herri Aldizkarien hazkundea Euskara Elkarteen eskutik etorri da gehienbat. Euskalerriko gizarte zibilak izan du ekimena, beste arlo askotan bezela, euskarazko komunikabideen ezarpenean: prentsa idatzia dela, irratia dela edo telebista dela. Baina euskarazko prentsa idatziaren garapena litzateke azpimarragarriena. Batez ere euskararen normalizaziorako eginkizuneko arloan ikusentzuneko esparrua EITBk betetzen du, baina prentsa idatziaren esparrua betetzeke uzten du eta hutsune hori betetzen duelako. Zeregin honetan EITBren osagarri suertatzen dela esango genuke.

"Euskarazko prentsa idatziko parte diren herri aldizkariek, gaur egungo egoeran ezingo dute indarrik hartu eta aldizkarigileek alkarrengana hurbiltzea behartuak daude euren proiektua bideragarria egingo duen erakundea egituratzeko" dio Joxe Mari Muxika Topagunea-ko lehendakariak aurrera begira eman beharreko pausuak zehazterakoan.

kal Herrian

# Publizitate iragark

## 50 urte igaro ondoren, orduko aldizkarian iragartzen zi

"Herri-aldizkariak ondo zaindu behar du publizitatea, baita bertan egin behar denean ere. Bultzatzaileek ezin dute inolaz ere ahaztu publizitatea dela finantzabiderik inportanteenetakoa eta horregatik hain zuzen, babestu eta mimatu egin behar dela. Aldizkariak zenbat eta publizitate gehiago eta iturri desberdinetakoa eduki, orduan eta askatasun handiagoa izan lezakeela uste duenetakoa nauzue. Nekez berma daiteke aldizkari edo komunikabide baten independentzia diru-iturria bakarra denean". Hitz hauek sinatzen disuena Joxe Aranzabal da, Jakin aldizkariko 69. alean idatzi zuen erreportai batean. Aranzabal kazetaria eta Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateko irakaslea da.

Orrialde hauetan hala ere ez gara gaur egunean publizitateak gure aldizkarian daukan garrantziaz arituko. Lerro hauen helburua, publizitateak izandako aldaketen berri ematea da, irakurleak bere begiz ikus dezan nolakoa zen iragarki bat duela 50 urte eta gaur egun.




Gauza guztiek komunikatzen dute zer edo zer. Xehetasun txikienak ere sentsazioren bat, susmoren bat, sentipenen bat, hausnarketaren bat eragiten digu beti, gero hura hitzetara tolesteko gauza izango ez ginatekeen arren askotan.

Pertsona batek esaten dituenak bezainbeste informazio edo gehiago ematen digute hari buruz, bere keinuek, moduek, aurpegiek, ahotsak, janzkerak, gorpuzkerak, ilea eramateko moduak eta beste hamaika kontuk.

Berdin-berdin, enpresa baten publizitateak bezainbat edo gehiago esaten digute haren eraikinaren itxurak, kokapenak eta tamainak, bertako arduradunen eta langileen auto, jantzi eta moduek, hedabideek enpresari buruz edo haren produktuen inguruan esandakoek eta abar.

Eragin nahiko genukeen sentsazioa lortzeko ondo neurtu eta planifikatu behar genituzke beti xehetasun gutziguztiak, gauzarik txikienek ere asko - batzuetan gehiegi- komunikatu baitezakete, honako pasadizu argigarriak erakusten duenez:

Milioiak eta milioiak gastatzen dituzte ikerketa ezberdinek hegazkina munduko garraiobiderik seguruena dela erakuts dezaten eta hedabideek albiste hori behin eta berriz zabal dezaten, milioiak eta milioiak gastatzen dituzte publizitatea egiten (telebistan, irratian, egunkari eta aldizkarietan, hesietan, dendetan...) jendeak hegazkinari beldurra gal diezaion, hegazkinen barrualdean segurtasun gailuak jarri eta erakusten dituzte, hegaldiro azafata bat jartzen dute larrialdi egoeretarako azalpenak ematen...

Eta gero, zer gertatzen da hegazkina aireratzera doan unean azafataren batek gurutze santuaren egiten baldin badu gora begira?...

Komunikazioa bere osotasunean ulertzeko gai den edonorentzat nabarmena da lanabes edo teknika bat dela publizitatea, garrantzitsuenetakoa agian enpresa askorentzat, baina kasu guztietan, beste pieza bat baino ez engranaje oso batean.



# iak duela mende erdi

## ren zenbait komertziok gaur egun ere gurekin jarraitzen du













**Irudietan** ikus ditzazkegun iragarki zaharrak duela 50 urtekoak dira. Orduan, zenbait hilabetez, 1958ko martxoa eta 1959ko ekaina bitartean argiratzen zen "Ondarribi" aldizkaritik hartutako adibideak dira. Aldizkaria elebitan idazten bazen ere, iragarki guztiak gazteleraz idazten ziren. Normala denez, orduko euskarak ez zuen egungoak daukan egoera, eta gaztelerazko testuak askoz eraginkorragoak ziren euskarazkoak baino.

Hondarribiar askok (adin konkretu batetik gorakoek behintzat), ongi gogoratuko duten 'Joaquinitaren denda', 'Restaurante Marciana', 'Saturnino Mazo, vinos y licores', 'Salón Elizalde', 'Hermanos Pascua, comestibles y droguería'… Oroitzapen ederrak askorentzat!

Xelebrea da ikustea nola duela 50 urte 'Ondarribi' aldizkari hartan agertzen diren merkatal iragarki batzuk oraindik ere gure 'Hondaribian' agertzen diren ere: 'La Hermandad', 'Bar Restaurante Rafael', 'Librería Olearso', 'Bar Conchita'… Gorabeherak izan dituzten arren, gaur egun gure artean daude, zoriontzeko eta eskertzeko modukoa.

Azkenik, aipagarria da duela mende erdi, aldizkariaren iragarkietan, Irungo zenbat komertzio zeuden. Asko Hondarribiko semeen negozioak ziren, baina Irungo merkataritzak orduan zuen indarraren erakusle bada ere iragarkien zerrenda: 'Almacenes Iturria', 'Talleres Yarza', 'Librería Cervantes', 'Foto Bidasoa', 'Pastelería Aguirre' (gaur egungo logotipo berdina duelarik)…

Ia mende erdi ondoren, publizitateak hor jarraitzen du, eta etorkizunerako ezinbesteko faktorea dela esatea ez da gezurretan aritzea. Lerro hauen bitartez, hilero 'Hondarribia' aldizkarian bere iragazkia jartzen duten dendari eta profesional guztiei gure eskerrik beroenak bidaltzen dizkiegu.






# Hondarribia aldizkariaren harpidedunak, herrian eta munduan zehar banatuak



**1986**an Hondarribia aldizkaria sortzen denean, bere bultzatzaileek gogor lan egiten dute ezagutarazi ahal izateko. Bere kotxeak eta hankak erabiliz banatzen dituzte argitaratzen diren aleak.

Hala ere, zorionez denborak aldatu egin dira. 1995. urteaz geroztik, Udaleko Euskara Batzordetik aldizkariaren harpidedun izango den pertsonen zerrenda bat osatzen hasten da. Horrela, bi gauza lortuko dira: eskuz-eskuko banaketa neketsuarekin amaitzea, eta aldizkaria etxeetara helduko dela eta irakurriko dela ziurtatzea, korreo bidez egingo da eta.

Denborak aurrera egin ahala, zerrenda osatzen joango da. Gaur egun, Hondarribia aldizkaria bere etxean jasotzen duten pertsonak (edo familiak) 772 dira. Urtero gora egiten duen kopurua, seinale ona!

Zifra hau aztertzen hasita, gauza kuriosoak aurkituko ditugu. Adibidez, atzerrira 32 aldizkari heltzen dira, baldin eta Hendaia atzerria bezala kontsideratzen badugu. Herrialde hauen zerrenda bitxia da benetan: Frantzia, Italia, Ingalaterra, Eskozia, Argentina, Brasil, Estatu Batuak…

Harpidedunen artean, %77 Hondarribian bizi da. %12,7k Gipuzkoan jasotzen du alea, % 4 Euskal Herriko gainontzeko herrietakoa da, %2,5 Espainiarra eta % 4 atzerritarra. Ez da beraz txantxetako gauza.

## Nola dagoen banatuta



# Martin Ugalde eta Juan San Martin,

## bi lankide fin

Aldizkariak bi hamarkada hauetan izandako ibilbidean, jende haundia ezagutu du, baina horietako batzuk tamalez orain ez daude gure artean. Urte askotan lan eskerga egin ondoren, alor askotan, baina kasu honetan euskararen alde, agur esan ziguten, gordetzeko moduko altxor ugari utzi ondoren. Juan San Martin eta Martin Ugalde, jaiotzez eibartarra eta andoaindarra, oso lotuta egon ziren Hondarribiarekin, bere eta familiaren bizileku bezala hautatu baitzuten.

Aldizkariaren sorrerako urteetatik euskarazko euskarri baten alde agertu ziren, eta bere ogibideek uzten zieten neurrian, Hondarribia aldizkariaren defentsan lan egin zuten. Eskertzeko moduko lana egin zuten, eta balio bezate lerro hauek bi gizon handi hauen oroitzapen gisa.

**Juan San Martin** 1922ko ekainaren 23an jaio zen Eibarren. Han egin zituen bizitzaren lehenengo urteak, 1936an gerra piztu zen arte. Aita Valentziara joan zen Errepublikaren alde borroka egitera eta ama eta lau anai-arrebak ihesi ibili ziren Arratian, Bilbon, Santanderren eta Gijonen. Bordelerantz itsasontziz zihoazela, frankistek hartu zuten ontzia eta Ferrolera eraman zituzten San Martin eta bere senitartekoak. Azkenik, Eibarrera bueltatu ziren.

Tornulari hasi zen lanean egunez, eta gauez, berriz, eskolara joaten zen. Gazte-gaztetatik irakurketa-zaletasuna bizi-bizirik izan du eta horrek eman dio autodidakta oinarriaren heziketa. Euskaraz alfabetatzeari ere, bere kasa ekin zion. Lanbide aldetik industria arloko zenbait espezialitateren esparruan aritu izan zen Eibarren eta, ondoren, makinaria inportatzen zuten enpresetan lankidetza eskaini izan du ere.

Euskal Herritik zehar ibili zaigunez gero, jarraiko gaiak landu ditu: historiaurrea, linguistika, arteak, arkeologia eta etnografia. Honela ba, historiaurreko zenbait aztarnategi (erromatarren garaikoak) eta artelan batzuk identifikatu egin ditu. Aldi berean, zenbait herrikanta eta eskuz egindako lanen bilketa egin izan du.

Aldizkari honetan egindako kolaborazio guztiak Udalak liburu batean argitaratu zituen 2003an. Urte bereko abenduan, Hondarribiko urrezko domina eman zioten eta seme kuttuna izendatua izan zen.



Juan San Martinen kolaborazio guztiak irudietan dagoen liburuan argitaratu ziren



Martin Ugalde Hondarribiko etxetik Hendaia aldera begira

**Martin Ugalde** 1921ean jaio zen Andoainen. Hamalau urte zituela sortu zen gerratea. Erbestera alde egin behar izan zuen eta Venezuelan eman zituen bizitzako urte luzeak. 1969an Euskal Herrira itzuli zen. Harrezkero ezaguna dugu kazetari, elkarrizketatzaile, historialari eta literatur idazle gisa. Venezuelan ernatu zitzaion literatur sena, eta hango idazle hego amerikarren eragina dute bere lehen narrazioek. Ezagunak dira oso Hiltzaileak (1961, 1985) eta Mantal urdina (1984) narrazio liburuak, euskal ipuingintzaren nola-halako aitzindaritza bat bete zutenak. Aipagarriak dira, bestalde, Itzulera baten historia (1990) eta Pedrotxo (1994). Beti ere erbesteratuaren esperientzia bazterrezina gertatuko zaio egileari. 2004 urtean hil zen Hondarribian.

Espainiako gerrak eta ondorengo erbesteak goitik behera erasan eta markatu zuen Ugalderen bizitza. Venezuelan 22 urte egin zituen. Kazetari ezagutua izatera iritsi zen han, lanpostu ona erdietsi zuen, hiru seme-alaba jaio zitzaizkion, gurasoak bertan zituen, eta, horregatik guztiagatik, bizitzaz lasai gozatzeko tenorea gertu zuela zirudien, baina justu orduantxe Euskal Herrira itzultzeko erabakia hartu zuen. 1969a zen eta 48 ute zituen. Erbesteari itzulbidea bilatu zion, Euskal Herriarekiko engaiamenduak bultzatuta. Hondarribiko bere etxean hil zen, 82 urte zituela, azken urteetan larritzen joan zitzaion gaixotasun batek jota.

Behean, ezkerraldean San Martin Jaizkibel mendian egindako indusketa batean. Eskuinaldean, Martin Ugalde, 1959an Venezuelan egindako bidaia batean





# Demografia: 20 urtez hondarribiarren gorabehera interesgarriak aztertzen

**Sortu** zen egun beretik eta 20 urte igaro direla ikusita, aldizkariko atal batek irakurlearen interesa deitzen badu, hori "Demografia" da. Aurreko hilean herrian zorionez jaio eta ezkondu diren pertsonen zerrenda, eta zoritxarrez gure artetik joan diren haien izenak ikustea guztiok dugun interesa da. Hortaz gainera, orain Fermin Olaskoagak egiten duen bezala, hainbat datu interesgarri batzen baditugu, Arrantzaleen Kofradian egindako harrapaketak, Udal Liburutegiko maileguak, eguraldiaren datuak… aldizkariko ezinbesteko orrialde bilakatzen da.

Hondarribiak gora-beherak ditu demografía aldetik, gainontzeko herriek duten bezala. Datu horiek Bake-Epaitegiko erregistroan gordetzen dira. Epaitegi honek zerbitzu bikaina eskaintzen dio herritarrari, eta duela hilabete gutxi ireki ziren azpiegitura berriekin, hainbat eta hobe.

7 HONDARRIBIA

## HERRI DEMOGRAFIAREN GOITIBEHERAK

### JAIOTZAK

### EZKONTZAK

### HERIOTZAK

### MARTXOAN ZER?

**URRIKO EGURALDIAREN DATUAK.**
**(Hondarribikoaireportutik jasoak).**

| | |
|---|---|
| Tenperaturarik gorena: | 29,7° C, hilaren 25ean. |
| Tenperaturarik beherena: | 10,5° C, hilaren 13an. |
| Bataz besteko tenperatura: | 19,6° C. |
| Bataz besteko hezetasuna: | % 68 |
| Euri-litroen kopurua: | 103,4 litro. |
| Egunik euritsuena: | hilaren 11an 34,6 litro. |
| Euri indartsuenen unea: | hilaren 11ko 13,45etan, 30,0 litro. |
| Egun euritsuak: | 17 egun. |
| Elur egunak: | 0 egun |
| Kazkabar egunak: | 0 egun |
| Ekaitz egunak: | 3 egun |
| Behe-laino egunak: | 2 egun |
| Ihintz egunak: | 9 egun |
| Eguzki kopurua: | 137,2 ordu |
| Bataz besteko presioa: | 1012,7 milibar |
| Presiorik gorena: | 1027,4 milibar, hilaren 28an |
| Presiorik beherena: | 996,2 milibar, hilaren 18an |
| Haizea >55 Km/ord. | 9 egun |
| Haizerik indartsuena: | hilaren 3ko 4,45etan, 89 Km/ord. |

**ARRANTZALE KOFRANDIAN URRIAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK**

*Txitxarroa (Trachurus trachurus)*: 3.746,70 kilo
*Hegalaburra (Thunnus thynnus)*: 146.906,50 kilo.
*Hegaluzea (Thunnus alalunga)*: 78.311,10 kilo.
*Boga (Boops boops)*: 403,10 kilo.
*Zarakuntza (Oblada Melanura)*: 8.375,40 kilo.
*Makarela (Scomber japonicus)*: 8.243,30 kilo.
*Korrokoi (Chelon Labrosus)*: 2.229,20 kilo.
*Muxar handia (Diplodus sargus)*: 381,40 kilo.
*Sabia (Sarpa salpa)*: 1.104,90 kilo.
*Bestelakoak*: 273,20 kilo.

**HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK URRIAN**

*Altak*: Jaiotzak: 16, eta kanpotik etorriak: 63
*Bajak*: Hildakoak: 8, eta herritik joanak: 48
Biztanle kopuru orokorra: 16.399 bizilagun.

**URRIKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.**

**Mailegatutako liburuak:** 355 euskaraz, 1130 gaztelaniaz eta 16 bestelakoak. Guztira: 1501 liburu.

**Ekarri diren liburu berriak:** 20 euskaraz, 87 gaztelaniaz eta 1 bestelakoak. Guztira: 108 liburu.

**Bazkide berriak**: 8 gizon eta 17 emakume. Horietatik 13 heldu eta 12 haur. Guztira 25.

**Gehien mailegatutako liburuak:**

*Haurrak*: Euskeraz: GENECHTEN, Guido Van.- Amatxo, zergatik.- Ibaizabal.
Gaztelaniaz: IBAÑEZ. -Las mejores aventuras de Mortadelo y Filemón.- Ed. B.
*Helduak*: Euskeraz: ATXAGA.-Lekuak. - Elkar.
Gaztelaniaz: FALCONES, Ildefonso.- La catedral del mar.-Grijalbo.

Gaur egun, Fermin Olaskoagari esker datu-bilketa sakona egiten da, ez bakarrik jaio, ezkondu eta betirako desagertutako pertsona haiekin, baita aireportutik jasotako datu interesgarriekin, hala nola, egun euritsuak, kazkabar egunak,, atunaren harrapaketak…

20 urte daramatza Hondarribia aldizkariak datu interesgarri hauen bilketak egiten, hiritarren txutxu-mutxuak indartzen, batzuek ezetz esango badute ere, guztioi interesatzen zaigu jakiteak "ez dakit nongoaren semea ezkondu egin dela", "hau eta honek neskatila bat eduki dutela"…

Segi dezala beraz "Demografía" atalak beste urte askotan, askok uste baina zerbitzu handiagoa egiten baitu.

# Hondarribiaren aldaketa hiri bezala: 1986-2006

Sarritan aritu gara ale berezi honetan gure aldizkariaren urteurren bereziaz, 20 urte igaro direla, zenbat aldatu den urte guzti horietan, ze alderditan eman diren aldaketa nagusienak… Gauza asko aldatu dira bizitzan 20 urtetan, baina alderdi bat beste denaren gainetik azpimarratu behar bagenu, hori hirigintza litzateke.

Hondarribiak azken 15-20 urte hauetan hirigintza aldetik izan dituen aldaketak ikaragarriak dira. Gehienok baditugu lagunak, agian urte askotan Hondarribira etorri gabe egon direnak, eta orain, urte asko igaro ondoren, esaten duten lehen gauza zera da: zenbat aldatu den herria!!!

Etxebizitzak, berdeguneak, biribilguneak, industrialdeak, hondartzako kirol gunea, Amute, Puntala, Akartegi auzoa (Labreder kalea)… denetatik egin da azken urteotan. Hiria zabaltzen joan da, etengabeki gora egin du populazioak eta denentzat tokia egin behar!

Udaletxeko Hirigintza Departamentura jo dugu, bertan topatu ditugu gure herria nolakoa zen eta nolakoa den adierazten dizkiguten irudiak. Airetik hartutakoak dira, Paisajes Españoles enpresak hain zuzen. Zuen begiez ikusi zenbat gauza egin daitezken 20 urtetan.



## 1986

Aldizkaria jaio zen urtean Hondarribian 13.042 pertsona bizi ziren, hala dio behintzat udal erroldak. Irudian ikus dezakegunez, Puntal auzoko etxebizitzak orduan hasi ziren egiten. Ordurarte berdegune zabalak zeuden bertan, XX. mende haseran egindako lur zabalduraren ondoren. Aurretik dena ura zen.

Irudian ongi fijatzen bagara, ordurako Rio Bidasoa hotela eraikia zegoela ikusiko dugu. Etxebizitza hauek eraiki ondoren, ezkerretan geratzen zen lursailean, Udalak Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraiki zituen 90. hamarkadan, argazkian dauden baratzak betirako desagertu zirelarik.



## 1987

Aurekoarengandik kronologikoki nahiko jarraia den arren, 87. urteko argazki hau argitaratzea egokia iruditu zaigu. Zezen plaza da protagonista nagusia, baita bere inguruan dauden eraikin ederrak ere, eta zer esanik ez Biteri ikastetxearen aurretik doan errepideak jasan dituen aldaketak.

Zezen plaza 90. hamarkadaren hasieran desagertu zen, eta etxebizitza eraiki ziren bertan, eta atzekaldean zuen lur azalera zabalean, Biteri eta Haizeder etxebizitzen bizkarrean hain zuzen ere.



# 1992

Azken urteotan hiriko toki batek itxura aldatu badu, ziuraski hori hondartzaren ingurua da. Hondarribia ezagutzen ez duen bati alboan daukagun irudi hau jarriko bagenio eta jarraian gaur egungo beste bat, agian herri desberdinak direla esango luke. Biztanleria orduan 13.525ekoa zen.

Alde batetik Hondartza Kiroldegia, herriak hain beharrezkoa zuena, eta bere inguruan sortu diren kirol azpiegiturak, eta beste alde batetik, kirol kaia, arrantzaleentzat Benta berria eta ontzien babeserako egindako dikeak batzen baditugu, erraz ikusiko dugu sekulako inbertsioa egin dela hiriko puntu honetan. Denborak ematen digun perspektibarekin, inbertsio oso positiboa izan dela argi dago.

1 9 8 6   1 9 8 7   1 9 8 8   1 9 8 9   1 9 9 0   1 9 9 1   1 9 9 2   1 9 9 3   1 9 9 4   1 9 9 5   1 9



# 1995

Atal honetako lehen argazkian Puntal auzoaren aintzineko itxuraren berri eman dugu. Irudi hartatik eta hemen daukazuen beste hontara ia hamar urteko diferentzia dago. Argazkiaren behekaldean babes ofizialeko etxebizitzak dira eraikitzen ari direnak. Urte honetan Hondarribian 14.453 pertsona bizi ziren.

Ia hamar urtetan gauzak zenbat alda daitezken argi uzten digu argazkiak. Gutxi geratzen zen inguru honek gaur egun daukan itxura edukitzeko. Ordutik aurrera, auzoan egin diren aldaketak, Bidasoa pasealekuaren zabaltzea eta birgaitzea izan ziren. Hortaz gain, obren artean agertzen den Villa Catalina, bere garaian Benta funtzioak bete zituena, erautsia izan zen, egitura bereko beste etxebizitza bat egin zelarik bertan.



# 2001

Irudi desberdina dugu hau, oso bertikala, goitik Hondarribia nola ikusten den ahalbidetzen diguna. Aireportuko pistak errreferentzi gisa balio digu ongi kokatu ahal izateko. Hortik abiatuta, ezkerraldera Puntala, Bidasoa pasealekua eta erdi-erdian Alde Zaharra.

Orduz geroztik hiriaren itxura aldaketa ez da hainbestekoa izan. Hogei urte hauetako aldaketa prozesua oso indartsua izan zen 90. hamarkadan, baina 2000. urtetik aurrera geldotu egin zen, nahiz eta inoiz ez den geratu. Milaurteko berriarekin batera, biztanle kopurua 15.000tik pasa zen.

96 1997 1998 1999 2000 2001 2002 2003 2004 2005 2006



# 2006

Amaitzera goazen urte honetan hauxe izan daiteke irudi esanguratsu bat. Foru bidetik hartuta itsasoaren bidea jarraiturik hauxe da ikus dezakeguna. Etorkizun hurbilean inguru honek ez du aldaketa sakonik edukiko.

Datozen urteetan erabat aldatuko dena Muliatekoa izango da. Jostaldi pilotalekuaren parez-pare, errepide berria egiten ari dira orain, eta hau amaituta, 400 bat etxebizitza joango dira bertan. Izango dugu bai astirik horretaz jarduteko. Aurten, hirian bizi den populazioa 16.000tik igaro da.

# HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122 86

1go Zenbakia | UDAL EUSKARA AZPIBATORDEA | 1986ko Martxoa



# ALKATEAREN AGURRA

Poz haundia ematen digu euskara zuzpertzeko aldizkari berri bat ateratzera goazela jakiteak. Euskararen udal-azpibatzordea izango da bere egilea, eta, udalaren babesean, hileoro argitaratzeko asmoz jaiotzen da.

Egia esan, gure euskara indartzeko egin daitezken lan guztiak gutxi izango dira. Horregatik, Udalak berak eman behar du, eta ematen saiatzen gara, erraztasunak eta urrats sendoak bide horretan. Euskara bait da gure herriaren eta gure herriko hizkera, eta hala irautea nahi dugu.

Aldizkariaren izenak berak, "HONDARRIBIA", herritar guztien aldizkaria eta guztientzat izango dela adierazten du. Lehen ere, honelako asmoz egin zuten, orain dela hogeita zortziren bat urte, OARGI-KERIZPEkoek ONDARRIBI orria, eta bi urteren buruan hainbat berri eman zabaldu zuen garai hartan gure herrian. Oraingo honek haren jarraitzaile izan nahi lukeela, diote egileek. Hala bedi.

Azkenik, Udalaren laguntza osoa beti izango dutela honelako ekintza jatorrek, azpimarratu nahi nuke, eta lehendabiziko zenbaki honen bidez, herritar guztiak agurtzen zaituztet, udaberri on bat opa dizuedalarik.

ALFONSO ORONOZ

# UDAL EUSKARA BATZORDEAREN AGURRA

Aldizkari berri bat argitaratzea, ez da egunero gertatzen den gauza, eta hori Hondarribian gertatzea harrigarria izan daiteke.

Aldizkari honen sorrera zertarako, batek baino gehiagok galde dezake, eta erantzuna zera izango litzateke, gure herria euskalduna dela inork ezin du ukatu. Adituek, eta azterketak esaten dutenez herri honen biztanlegotik % 70 bat euskalduna da, baina, euskaldun izatea ez da hitz egiten jakitea bakarrik, euskaldun izateko euskaraz bizitu behar da, eta gaur egun, zoritxarrez, hori ez da Hondarribian gertatzen.

Udalako Euskara azpibatzordea sortzeko arrazoia hori izan zen, gure herriko biztanleak euskaraz bizitzeko laguntza emateko, eta euskararen bizitza bultzatu eta zuzpertzeko.

Hortan ari gera, arazo askorekin, akats pilarekin, baina, hor gaude urratsak ematen eta oztopoak gainditzen.

Euskara azpibatzordearen asmoak zabalak dira, ezin dezakegu esan noraino iritsiko garen, baina, lanean jarraitzeko gogoa badugu, eta gogo eta asmo horietatik sortu da aldizkari hau.

Aldizkari batek eragin handia izan dezake gure herrian, eragina euskararen alderditik noski, euskara utsean izango bait da, eta eragina jendeak irakurtzea lortzen badugu, hauxe bait da kasu honetan daukagun helburua, hondarribiarrak euskaraz irakurtzen jartzea.

Aldizkari hau prestatzen hasterakoan, bi aukera genituen, alde batetik aldizkari literarioa egitea zen, idazle ospetsuak eta gai sakonekin, edo, aldizkari herrikoi bat egitea, edozeinek irakurtzeko modukoa, eta bertako gaiekin.

Orain dela hogei, hogeitabosten bat urte, Hondarribian, honelako aldizkari bat ateratzen zen. Bere iraupena ez zen oso luzea izan, hogeitamabosten bat zenbaki kaleratu ziren. Oargi Kerizpe Elkarteak argitaratzen zuen ONDARRIBI aldizkaria. Hura, ia erdara utsean argitaratzen zen, bazuen bai, artikuluxka batzu euskaraz, baina, haren helburua ez zen euskara bultzatzea. Beste helburu batzu izango zituen noski, baina, ideia bezela, herriko aldizkari oso atsegina zen, ulerterreza, eta ideia hari atxikiaz, haren antzekoa egitea pentsatu genuen, baina, euskara utsean.

Honekin pentsatzen dugu helburu hori betetzeko posibilitateak baditugula. Gero, irekia eta zabala ere egin nahi genuke, edozeinek parte hartzeko modukoa, eta, gainera, aldizkari herrikoi bat egitea ez du esan nahi edozein modukoa izan behar duenik. Noski, gai interesgarriak eta sakonak sartuko ditugula, eta edozein idazlek bere lanak bidaldu nahi balu, oso ondo hartuak izango direla. Bestalde, idazle gazteak gonbidatzen ditugu lanean has daitezen.

Hauek dira gure asmoak. Aldizkari honek iraupen luzea edukitzea gustatuko litzaiguke. Iraupen hori lortzen badugu, herriarentzat interesgarria delako izango da, eta herriko jendeak oso atsegin hartzen duelako.

Horrekin gure helburua beteta egongo litzateke, eta euskara salbatzeko gure hondar alea jartzen ari garela jakingo genuke.

HONDARRIBIA aldizkariaren lehenengo ale honetatik, Udalako Euskara azpibatzordeak agurtu nahi zaituzte, eta alde batetik euskara aurrera ateratzeko laguntza osoa eskatzen dizuen bezela, bestetik bere laguntza osoa eskeintzen du euskararen alorrean eduki dezakezuen edozein arazo konpontzeko.

